



## Liburutegi Nagusia Alderdi Eder

2026ko otsailaren 3a

<http://www.donostiakultura.com/liburutegiak/>

# Harkaitz Cano

(Lasarte-Oria, 1975)

Harkaitz Cano Lasarte-Orian jaio zen 1975ean. Donostian burutu zituen zuzenbide ikasketak, baina idaztea izan du beti ogibide. *Silueta* (2025), *Fakirraren ahotsa* (2018) eta *Twist* (2011) eleberriak, *Belarraren ahoa* (2004) ukronia, *Neguko zirkua* (2005) eta *Beti oporretan* (2015) ipuin bildumak argitaratu ditu, besteak beste. *Norbait dabil sute-eskaileran* (2001), *Pozaren erdia* (2022) eta *Ulu egiteko bolondres bila* (2023) poemarioen egilea ere bada. Irati Jimenezek *Mecanografiak* (2018) antologia apailatu zuen bere narrazio laburrekin.

Telebista eta komiki gidoilari gisa aritua, zinema eskolak eman izan ditu EQZEN eta Chicagoko Unibertsitatean. Sylvia Plath, Anne Sexton, Hanif Kureishi, Allen Ginsberg eta Raymond Carver euskaratzeaz gain, bera arduratu izan da eskuarki bere lanetako zenbait gaztelaniaz jartzeaz.

Lau bider eman diote Euskadi Saria eta beste horrenbestetan Espainiako Kritikarena. *Twist* eta *Fakirraren ahotsa* nobelekin 111 Akademia aipamena ere erdietsi zuen. Galiziako PEN Clubaren eskutik Rosalía de Castro saria jaso zuen 2018an. Dozena bat hizkuntzatan irakur daitezke bere liburuak.

## **Silueta**



Denek espero zuten nobela mardularen orde, Silueta lan esperimentalarekin itzuli da Ibarbia. Bahiketa baten istorioa kontatu digu bertan. Ez du inor epel utzi; alde edo kontra, sotil edo suhar, denek nahi izan dute zerbait esan —“bazen garaia”, “aukera galdua”, “antidotarik gabeko maisulan pozoitsua” —, eta, hain justu, nobelaz idatzi diren 31 iruzkinek osatzen dute liburu hau, Silueta-ren silueta.

Bi eleberri batean: idatzitakoa eta idatzi gabea.

Baina eraiki liteke nobela bat hura irakurri gabe, sortu dituen oihartzunetatik abiatuz? Atzeman daiteke nobelaren arnasa inguratzen duten testuak soilik irakurrita? Jolas literario hori proposatu digu Harkaitz Canok, bidean gogoetarako leiho andana

irekiz bidenabar; zer eskatzen diogun arteari, zer irakurleari, zer kritikari, zer hurbileko historiaren memoriari.

## Harkaitz Canoren argitalpenak (hautaketa)

Narratiba

**Paulov-en txakurrak** (1994)

**Beluna jazz** (1996) **N CAN**

**Telefono kaiolatua** (1997) **N CAN**

**Pasaia blues** (1999) **N-4 CAN**

**Belarraren ahoa** (2004) **N CAN**

**Neguko zirkua** (2005) **N CAN**

**Twist** (2011) **N CAN**

**Beti oporretan** (2015) **N CAN**

**Itzal zaunka** (2016) **N CAN**

**Tigre batekin bizi** (2017) **N CAN**

**Fakirraren ahotsa** (2018) **N CAN**

**Silueta** (2025) **N CAN**

Poesia

**Kea behelainoan bezala** (1994)

**Norbait dabil sute-eskaileran** (2001) **P CAN**

**Pozaren erdia** (2022) **P CAN**

**Ulu egiteko bolondres bila** (2023) **P CAN**

Haur eta gazte literatura

**Itsasoa etxe barruan** (2001)

**Omar dendaria** (2005)

**Lesterren Logika** (2005)

**Orkestra lurtarra** (2016)

Saiakera

**Zinea eta literatura: begiaren ajeak** (2008) **791.43 CAN**

**Txalorik ez, arren** (2014) **E CAN**

**Abesti bat gutxiago** (2015) **E CAN**

## Kritikak esandakoak

“Literatura jolas serioa dela esaten zuen gure inguruko idazle batek eta hala planteatua dago Harkaitz Canoren azken eleberria. Jostari heldu dio donostiarrak oraingoan euskal gatazka erdigunean duen eleberri bati. Kontua da eleberria ezagutu, eleberriaren fikzio mundu horretatik kanpo, ezin dugula ezagutu. Soilik, haren ganean egin diren balizko kritika batzuen bidez, zeharka jakin dezakegu haren edukiaren berri. Horrela, destolestu egiten da idazketa: egilearentzat inportanteak diren liburuko unek aipatzen dira eta eztabaidatzen. Irudi oteizar bat bihurtzen da liburua, azaletik bertatik.

Kritiketako batean aditzera ematen da kontatzen zaigun balizko nobela horren protagonistak, ETAko komando batek bahitutako enpresari bat, Roman izena duela eta horrek ematen duela egiazko protagonistaren berri: “roman”, eleberria. Izan, “nouveau roman” bat da liburua, lan esperimental bat. Forman eta edukian. Saiakeraren eta eleberri/fikzioaren artean dabil liburua. Saiakera fikziotik kanpo kokatzen den literatur genero handi bakana dela deuseztatzen da proposamen honekin.

Eta bestalde, Canoren espezialitatea erakusten du: artefaktu literarioari buruz hitz egitea, posible dituen molde guztietan. Baina nik muinean ikusi dudana gaia, aldiz, idazlearen obsesio handietako bat da: etika. Bere eleberrietako pertsonaien etika, idazteko, kontatzeko, esanahiak, bere forma guztietan, eraikitze lanari erantzuten diotenak. Ekitaldi historikoak sortzen jarduten duen militante politikotik hasi eta istorio bat kontatzen duen idazlearengana edo liburu bat komentatzen duen kritikariarengana. Badaki Canok larruz mudatzen, beti bera baina desberdina izan dadin.

Inguruko irakurle on batzuei Miguel Alcazarren “La crítica literaria en los noventa”ren eta Nabokoven “Pálido fuego”-ren eragina ikustea iruditu zaie.”

Aiora Sampedro / El Correo, 2025-12-27

“Durangoko Azokaren aurreko egunetan aurkeztu zuen Harkaitz Canok bere obra berria: Silueta. Eleberria edo. Eta gogoan dut sinopsia irakurri bezain laster Stanislaw Lemen Hutsune perfektua lana etorri zitzaidala burura. 1971n, idazle poloniarrek inork sekula idatzi gabeko liburuen kritikez osatutako liburua argitaratu zuen. Eta dirudenez, Canok hari omenaldi egin nahi izan dio 54 urte geroago.

Existitzen ez den eleberri bati buruzko 31 iruzkinek osatzen dute Silueta. Eta bi idazleen, hots, Stanislaw Lemen eta Harkaitz Canoren planteamenduak berdin-berdinak ez badira ere, bi lanen oinarrian dagoen eztabaida —tira, gogoeta— oso-oso antzekoa iruditzen zait. Azken batean, zerk zehazten du nobela baten existentzia? Istorioa idatzia egoteak? Ez dakit, ba. Benetan hala balitz, Silueta egundoko adarjotzea litzateke, eta idazlea, fartsante hutsa. Nik, ordea, ez dut inondik inora uste hala denik.

Liburuaren atzeko azaletik bertatik, testuaren autorea zirika ari zaigu irakurleoi: “Eraiki liteke nobela bat hura irakurri gabe, sortu dituen oihartzunetatik abiatuz? Atzeman daiteke nobelaren arnasa inguratzen duten testuak soilik irakurrita?”. Lehen galderari baiezko borobil batez erantzungo nioke. Izan ere, literaturazale guztiok irakurri ditugunak baino askoz liburu gehiagori buruz hitz egin dezakegu.

Pixka batez hausnartu ondoren, ez al da hori klasiko unibertsalen bereizgarrietako bat? Liburu ospetsu horiek guztiek ez dute gaur egunera arte iraun garai guztietako irakurleengan arrakasta itzela izan dutelako, edo ez horregatik bakarrik, istorio horietako bakoitza liburua bera gainditu eta belaunaldiz belaunaldi igaro delako baizik. Meritua da, gero, hainbeste jende kristau munduko

klasikorik klasikoenaren, hau da, Bibliaren pasarte mordoia ezagutzea eta are hitzez hitz aipatzeko gai izatea inoiz liburu sakraturik esku artean eduki gabe!

Bestalde, “nobelaren arnasa atzematea” kontzeptu eder-ederra iruditzen zait, eta onartu beharra daukat nolabaiteko lilura sortu didala. Baina oso poetikoa izanagatik, gutako askorentzat kontu arras arrunta da. Azken batean, ez al da hori, hain zuzen, kultura kazetariok gure egunerokoan egiten saiatzen garena? Baita ezinezko bat lortu ere: irakurri gabeko liburuei buruz ahalik eta zorrotzen idatzi, gure artikulua eta erreportajeetan irakurleek igar ez dezaten beraiek baino gutxiago dakigula guk. Bistan denez, bokazio handiko baina erromantizismorik gabeko ofizioa da gurea, literaturaren inguruan lanean diharduten beste askorena bezala. Eta kritikariak ez dira salbuespen.

Zenbat aldiz irakurri diogu kritikari lotsagabe baina zintzo samar bati edo besteri “Ez dut liburua osorik irakurtzeko astirik izan”? Zenbat kritika daude liburuarekin ia batere zerikusirik ez dutenak? Eta okerreanean jarrita, zenbat iruzkin idatziko ziren liburua ireki gabe ere, kritikariak idazlearen lekua harturik eta sormenezko ariketa bikaina eginez? Euskal Herritik kanpoko epaimahaikide ez-euskaldunek historia hurbilean zehar euskarazko obrei emandako literatura sariak adina bai, behintzat.

Zalantzarik gabe, badira inork idatzi gabeko eleberriak. Inork irakurri gabekoak dauden bezala. Baina horrek ez du esan nahi existitzen ez direnik. Aitzitik, guztiz posible da inork idatzi gabeko eleberri horiek zeharkako erreferentzien bidez “irakurtzea”. Are gehiago, esango nuke literatura jarduera zoragarria dela. Agian Harkaitz Canoren Silueta eleberria bera irakurtzea bezainbeste... batek dak ”

Iraitz Urkulo / Berria, 2026-01-03

## Erabilitako iturriak

Harkaitz Cano-Bloga

<https://harkaitzcano.com/>

Kritiken hemeroteka

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=9311>

<https://kritikak.armiarma.eus/?p=9307>